



LAN HITZARMENEO MAHAIAREN LABURPENA 9. mahaia

Atzo, maiatzak 7, Gizarte Ekimenezko Ikastetxeen Lan hitzarmeneko negoziazio mahaia bildu zen. Hasieran, sindikatu guztiek aurreko bileran Krsitau Eskolak aurkeztutako -AICEk bere egin zuena- idazkiari erantzuna eman zioten. Ez dago 2012ko abendua arteko zorra kitatzearen truke 2013an lansari murrizketarik onartzeko prest dagoen sindikaturik. Ezta bideragarritzat jotzen ere hitzarmeneran indarraldia 2013ko abendua arte luzatzea lansarien inguruko aurretiko akordio izanik.

STEE-EILASen jarrera horrela laburbildu daiteke:

- STEE-EILAS-ek positibo eta beharrezkotzat jotzen du zorra ordaintzeko alorreko plangintza negoziatzeko patronalek egindako proposamena, nahiz eta askoz lehenago iritsi behar zuen. Ezinbestekoa da presioak eta mehatxuak bertan behera geratzea. Onartu behar da egoera honetara iritsi garelako sindikatuen lanari eta langile askori- banakako erreklamazioak aurkeztuz- esker.
- STEE-EILAS prest dago adosteko zorra zatika ordaintzeko malgutasun-irizpideak eduki ditzakeen plangintza.
- STEE-EILAS-ek ez du inolaz ere onartuko lan hitzarmen berriaren negoziazioa epaitegiek bermatutako zorraren ordainketaren menpe egon dadin. Horrela, abiapuntua indarrean dagoen Lan Hitzarmena baino ez da izan behar.
- STEE-EILASen ustez negoziazioa benetan aktibatzea da eguneko egoera gainditzeko bide bakarra, horretarako bilera-egutegia azkartu beharko balitz ere.

Sindikatuaren ezekoa aurreikusita, Kristau Eskolak proposamen berria – AICEk bere egin zuena ere- aurkeztu zuen. Laburbilduz:

- Egutegi trinkoa adostu hitzarmena negoziatzeko.
- Aurkeztu hitzarmen kolektiborako testu-proposamena maiatzaren 30a baino lehen.
- Zorraren kitapena aurretik negoziatu. Proposatzen dute 2010eko zorra ekaineko nominan ordaintzea eta gainontzekoarentzat zatika ordaintzeko egutegia zehaztea. Adostutako kantitateak ordaintzeari aurre egin ezin dion ikastetxeari Batzorde Mistoak lan hitzarmena ez aplikatzeko aukera eman diezaion irizpide objektiboa zehaztu beharko litzateke.

Bilerak egiteko egutegia finkatu zen eta hurrengo maiatzaren 17an izango da

Bestelako kontuei dagokienez, Batzorde Mistoak lanean darrai AZPri dagokion epaia (publikarekiko homologazioa) betetzeko dauden oztopoak gainditzeko. Krsitau eskolak proposatu zion STEE-EILASei bialdeko berariazko bilera Gasteizko EGIBIDE zentruan zorraren inguruko kontuaz aritzeko.

Unean uneko informazioa ematen jarraituko dugu

Hezkuntzan STEE-EILAS

ARABA: Eulogio Serdan, 5	01012 Gasteiz	☎ 945 14 11 04	☎ 945 14 43 02	araba@stee-eilas.org
BIZKAIA: Nikolas Alkorta, 3 (Zabalburu)	48003 Bilbao	☎ 944 10 02 98	☎ 944 10 13 60	bizkaia@stee-eilas.org
GIPUZKOA: Baso-txiki, 30-34 (atzealdea)	20015 Donostia	☎ 943 46 60 00	☎ 943 45 36 27	gipuzkoa@stee-eilas.org
NAFARROA: Descalzos, 72 (Ionja)	31001 Iruñea	☎ 948 21 23 55	☎ 948 22 97 90	nafarroa@stee-eilas.org